



**SAIZAR**  
Sagardoa • Sidra Natural

URTARRILAK 25tik aurrera zabalik daukatzue gure sagardotegia.



Kale-zahar auzoa, 39  
**USURBIL**  
Sagardotegiko erreserbak: 943 37 39 95  
Bodega: 943 36 45 97  
e-mail: sidreria@sdrassalzar.com  
www.sidrassalzar.com



**TOPA.** Hainbat lagun sagardoarekin topa egiten. MADDISOROA

## TXOTX EGIN, BEGIRUNEZ

Aurreko urteetan egin duen moduan, Hernaniko Udalak neurri berezi batzuk hartu ditu eta hainbat zerbitzu martxan jarri ditu hasi berria den txotx garaia begira.

**T**xotx egiteko sasoi hasia dela, datozen asteetan lagun ugari joango dira Hernaniko sagardotegietara, eta herriko tabernetan eta kafetegietan ere ibiliko dira, otordua egin eta gero.

Aurten ere, Hernaniko Udalak txotx garairako neurri berezi batzuk hartu ditu. Udaltzaingoz zerbitzua handitu eta egokitu egin du, eta ordutegi zehatz batzuetan udaltzain kopurua gehituko du.

Ohiko komun publikoez gain, erdigunean behin-behineko bi gune ezarri ditu.

Aparkalekuei dagokienez, kanpotik datozen autobusek Ibaiondo poligonoan izango dute toki aproposa, eta autoentzat Karabel auzoan 280 autorentzako aparkalekua aholkatu du udalak. Herriaren erdigunera joateko igogailua dago auzo horretan.

Herri barruko autobusak sagardotegietara joateko zerbitzua eskainiko du txotx garaian. Zinkoenea geltokian izango da irteera. Osinaga aldera joateko; Itsasburu, Otsua-enea, Olaizola, Altzeta, Iparragirre, Elorri eta Goiko Lastola sagardotegietara joateko. Larre Gain sagardotegiak bere autobus zerbitzu pribatu du.

Zerbitzu bereziak ere izango dira talde osatuentzat autobus osoa ordainduta. Horretarako, te-



**FESTA.** Hernaniko taberna batean festa giroa, lazko sagardotegi garaian. GIPUZKOA HITZA

lefono zenbaki honetara deitu behar da: 658-703196.

Hernaniko Udalak mezu hau bidali die txotx garaian Hernanira joango diren bisitariei: «Txotx garaia Hernaniko sagardotegiak eta sagardoak ezagutu eta dastatzeko garaia da, sustrai sendoak dituen ohitura ezagutzeko aukera ezin hobea; baina, betiere, elkarbizitza bermatzen duten arauak errespetatuz. Hernanik bisitaria zaintzen duenez, bisitariak ere Hernani zaintzea eskatzen du udalak».

### Turismo proposamenak

Otsaileko, martxoko eta apirilko asteburuetan, Hernani ezagutzeko hainbat aukera izango dute bisitariak.

Erreserbak egiteko 943-33 70 28 telefono zenbakira dei daiteke, edo

mezu bat bidaltzen ahal da helbide elektronikoa honetara: [gurutzea@hernani.net](mailto:gurutzea@hernani.net).

**TOP ESPERIENTZIA.** Bisita gidatu bat hirigune historikoan, ibilaldi bat tren berdean, sagardo dastatzea eta bazkari bat sagardotegi batean.

**TURISMO SORTA.** Bisita gidatua hirigune historikoan, ibilaldia tren berdean eta sagardo dastatzea.

**TREN BERDEA.** Ibilbidea tren berdean, herrian zehar.

**BISITA GIDATUA.** Bisita gidatua hirigune historikoan (kultur ondare gisa monumentu multzo izendatua).

Txotx garaian turismoko informazio gune bat izango da Biterin (Kultur Etxearen aurrean). Informazio gehiago nahi izanez gero, Hernaniko Udalerako telefonoz deituta lor daiteke: 943-33 70 00.